



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

UDALETXERA BISITA GIDATUAK

- Izapidea: ate irekien jardunaldiak eta bisita gidatuak antolatzea Durangoko Udalean.
- Helburua: Durangarrei Udala eta berau osatzen duten sailak ezagutaraztea. Horrela, 2023-2027 gobernu-programaren 10.ardatza (Gobernu irekia eta gardena) betetzen da.
- Nori zuzenduta dago?: Durangon erroldatuta dagoen edonor etor daiteke ate irekietara eta bisita gidatueta. Adingabeen kasuan, heldu batek lagunduta joan beharko dute.
- Noiz izango dira? 2025ean bi jardunaldi egingo dira. Lehenengoa maiatzean eta bigarrena azaroan. Horien arrakastaren arabera, hurrengo urteetan jardunaldi hauekin jarraitzea eta urtean lau egitea espero da.
- Ibilbidea: Ibilbidean zehar, udaletxearen kanpoaldea eta barrualdea bisitatuko dira:
 - **Kanpoaldea**: udaletxearen historia orokorra, eraikinaren arkitektura, berau osatzen duten pinturak eta estanpatuak eta arkupea.
 - **Barrualdea**: osoko bilkuren aretoa, hall-a, alkatetza eta bulego teknikoak bisitatuko dira beren lana erakusteko.
- Iraupena: Guztira 90 minutuko bisita izango da: 20-25 minutu inguru kanpoaldean eta 60-65 udaletxe barruan.
- Hizkuntza: Bisitak ele bitan egingo dira (gaztelaniaz eta euskaraz).
- Gehieneko edukiera: 30 pertsona
- Doakoa
- Nola eman izena? Izena eman nahi dutenek honako bide hauen bitartez eman ahal izango dute:
 - **ONLINE**- Webgunean inprimaki bat betez.
 - **AURREZ AURRE**- Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Turismo bulegoan inprimakia bete eta aurkeztuz.
- Hautaketa-irizpideak: Baimendutako gehieneko edukiera gaindituz gero, Durangon erroldatutako pertsonen eskaera-dataren hurrenkerari jarraituko zaio.